

Ambrosia spp. elikakatean

Ambrosia spp.-k kezka sortzen du osasun publikoan, bere polen propietate alergenikoak direla eta. Landarearen polena arnasteak, besteak beste, arazoak, errinokonjuntibitisa eta asma eragin ditzake.

Haziak elikakatean duen presentziari dagokionez, hegaztientzako pentsuak Ambrosia spp. sakabanatzeko bide nagusia dira.



Ambrosia spp.

Legeak ezarritako muga

Pentsuetako *Ambrosia spp.* presentziaren muga Batzordearen 744/2012 Araudiak (EE) araupetzen du. Horren bidez, Europako Parlamentuaren eta Batzordearen 2002/32/CE Zuzentarauko I. eta II. eranskinak aldatzen dira, honako hauen gehieneko edukiei dagokienez: artsenikoa, fluorra, beruna, merkurioa, endosulfana, dioxinak, *Ambrosia spp.*, diklazuriloa eta sodio A lasalozida. Halaber, aldatu egiten ditu dioxinetarako esku-hartzearen mugak.

Produktua	Muga (ppm)*
Lehengaiak.	50
Artaxikia eta basartoa, animaliei elikagai gisa zuzenean ematen ez zaizkienak.	200
Irindu gabeko aleak eta haziak dituzten pentsu konposatuak.	50

*% 12ko hezetasunaren edukia duen oinarriaren gainean.

Deskripzioa

Generoa (*Ambrosia spp.*) landare edo belarkara eta/edo zuhaixka talde baten baitan dago, Ipar Amerikatik datozen *asteracea* familian. Hortik hedatu dira, hain zuzen ere, mundu osora. Landare hau Europan landare aloktono inbaditzailetzat jotzen da. *Ambrosia artemisiifolia* kolonizatu eta Europa hegoaldeko zenbait eskualdetara zabal hedatu da.

Ambrosia spp.-k kezka eragiten du osasun publikoan, bere polenaren propietate alergenikoak direla eta. Landarearen polena arnasteak, besteak beste, arazoak, errinokontjuntibitisa eta asma eragin ditzake.

Hegaztientzako pentsua *Ambrosia spp.* hedatzeko bide nagusia izan daiteke, bereziki lehendik kutsatuta ez zeuden zonaldeetan; izan ere, eraldatu gabeko *Ambrosia spp.* hazien kopuru aipagarriak izaten dituzte, askotan, pentsuek.

Hori dela eta, gaur egungo araudiaren xedea da eraldatu gabeko *Ambrosia spp.*-ren haziekin kutsatutako hegaztientzako pentsuen erabilera saihestea, seguruenik *Ambrosia spp.*-rekin egon daitekeen hedapen handiena ekiditeko Europar Batasunean.

Gainera, *Ambrosia spp.* nekazaritza-produktuei nabarmen eragiten dion belar txartzat jotzen da.

Toxikologia

Ambrosia spp. bereziki osasunaren esparruko agintariengan kezka eragiten du, duen polenaren propietate alergenikoak direla eta. *Ambrosia spp.*-ren polena ekoizteko garaia berantiar samarra da, eta abuztutik urrira bitartean doa. Horrela, *Ambrosia spp.*-ren polenaren presentziak beste arazo bat ekar dakieke polenari alergia dioten pertsonen, arazoaren urtaroko izatea areagotu egin baitaiteke.

Pertsonen osasunean izan ditzakeen eragin larrienak arnastutako polenaren ahalmen alergenikoarekin eta errinokontjuntibitisa zein asma eragiteko ahalmenarekin daude lotuta, bai eta, neurri txikiago batean bada ere, larruazaleko alergiekin eta elikagaiekiko alergiearekin ere.

Animalia-jatorriko produktuen hondakinak

Ambrosia spp.-ren polenarekiko zuzeneko aho esposizioa erlearen produktuak (eztia, erregina-jelea eta propolia, besteak beste) kontsumitzean baino ez da atzematen.

Ez da jaso *Ambrosia spp.*-ren alergenoen presentziari buruzko informaziorik behi-esnean; izan ere, seguruenik, behiek *Ambrosia spp.* duten landareak ez dituzte kontsumitzen.

Animalien artean dituen ondorioak

ZALDIAK:

Zaldia polen-antigenoekiko animalia-espezie alergia duna izan daitezke. Arnasteko zenbait nahastek onddoen esporak arnastearekin lotura izaten dute (*Aspergillus fumigatus*), eta uste da erreakzio bera egon ohi dela *Ambrosia spp.*-ren polena arnastean.

BEHIAK:

Zaldia bezala, behiek ere polen-antigenoekiko alergia izan dezakete.

KONPAINIAKO ANIMALIAK:

Sudurreko kongestioa aztertzeke eginiko ikerketa batean, *Beagle* arrazako txakurrak *Ambrosia spp.*-ren hazien eraginpean jarri zituzten, sudurreko arnasketaren bidez.

Erantzun gisa, sudur-barrunbearen bolumenarekin loturiko dosia murriztu zela ikusi zen, baina kontrako eragin sistemikoak azaldu gabe.

Gizakien artean dituen ondorioak

Ambrosia spp. landareek polen-aleen kopuru handiak ekoizten dituzte. Horiek erraz garraiatzen dira airearen bidez, eta pertsonen arnasa-aparatura irits daitezke. *Ambrosia spp.*-ren polena bere ahalmen alergeniko handiagatik da ezaguna. Errinokontjuntibitisa eta asma izaten dira, polena arnastearen ondorioz, atzematen diren seinale kliniko arruntenak. Larruazaleko esposizioa airearen bidez edo landarearekin kontaktuan egoteagatik sor daiteke. Kasu horietan, dermatitis atopikoa izan ohi da seinale klinikorik arruntena. Arraroa da urtikaria agertzea kontaktuaren ondorioz.

Lehengaien kutsadura, kutsadura-bideak

HEGAZTIENTZAKO PENTSUEN GARRANTZIA AMBROSIA SPP.-REN BARREIADURAN

Merkaturatutako hegazi-pentsuen % 20 eta % 91 arteko kopuruak, *Ambrosia spp.*-ren haziekin izaten ditu. Atzeman dute hegazi-pentsuen kilogramo bakoitzean 0 eta 2.781 hazi artean daudela.

Frogatu egin da hegazti-pentsuen eta *Ambrosia spp.* landareen barreiaduraren artean lotura dagoela. Alemanian eginiko ikerketa batean, lokalizatutako *Ambrosia* landareen % 55 hegaztientzako asketatik hurbil zeuden lorategi pribatuetan aurkitu zituzten.

BESTE PENTSU BATZUK:

Ikusi da abeletzeko animalientzako pentsuak ekoizteko erabiltzen diren lehengaiak (besteak beste, artoa, garia, ekilore-haziak, basartoa, kakahueteak, soja, ilarrak eta babak) *Ambrosia spp.*-ren haziekin kutsatuta zeudela.

Ambrosia spp. haziekiko esposizio-arrisku handiena aleen kutsadura bidez gertatutakoa da, eta, ekiloreen uztetan izan ezik, herbizidak erabiltzen dira belar txarren aurka.

Ekilorearen kasuan, eta bere landareek botanika aldetik duten antzekotasuna dela eta, ez dira erabiltzen *Ambrosia spp.*-ren landareen aurka.

Nolanahi ere den, arriskua murriztu egiten da; izan ere, animalia horiek oso gutxitan elikatzen dira, zuzenean, ekilore haziekin. Gehienetan, ekilore-hazien azala kendu egiten da, eta olioia atera baino lehen 80-90° C-tan prozesatzen dira.

Produktu/lehengaietako kutsadura kentzea

Herbiziden bidezko laboreek *Ambrosia spp.* bezalako belar txarrak desagerraraz ditzakete.

Garrantzitsua da belar txarrak hasieratik modu egokian kontrolatzea; zehazki, herbizidak aplikatuz laboreak eta adbertizioak azaleratu baino lehen egin behar da.

Informazio osagarria

Legeria.

- Batzordearen 744/2012 Araudia (EE), Europako Parlamentuaren eta Batzordearen 2002/32/CE Zuzentarauko I. eta II. eranskinak aldatzen dituena, honako hauen gehienezko edukiei dagokienez: artsenikoa, fluorra, beruna, merkurioa, endosulfana, dioxinak, *Ambrosia spp.*, diklazuriloa eta sodio A lasalozida. Halaber, aldatu egiten ditu dioxinetarako esku-hartzearen mugak.
- Batzordearen 574/2011 Araudia (EE), aldatu egiten duena Europako Parlamentuaren eta Batzordearen 2002/32/EE Zuzentarauko I. eranskina, honako hauen gehienezko edukiei dagokienez: nitritoak, melamina eta *Ambrosia spp.* Halaber, aldatu egiten ditu zenbait kokzidiostatiko eta histomonostatoren transferentzia, eta finkatu egiten ditu I. eta II. eranskinak.

- PRE/1809/2006 Agindua, ekainaren 5ekoa, animalientzako elikagaietako substantzia gogaikarri buruzko apirilaren 25eko 465/2003 Errege Dekretuko Eranskina aldatzen duena.
- PRE/1594/2006 Agindua, maiatzaren 23koa, animalientzako elikagaietako substantzia gogaikarri buruzko apirilaren 25eko 465/2003 Errege Dekretuko Eranskina aldatzen duena.
- PRE/890/2007 Agindua, apirilaren 2koa, animalientzako elikagaietako substantzia gogaikarri buruzko apirilaren 25eko 465/2003 Errege Dekretuko Eranskina aldatzen duena.
- PRE/1501/2009 Agindua, ekainaren 4koa, animalientzako elikagaietako substantzia gogaikarri buruzko apirilaren 25eko 465/2003 Errege Dekretuko Eranskina aldatzen duena.
- PRE/2396/2009 Agindua, irailaren 8koa, animalientzako elikagaietako substantzia gogaikarri buruzko apirilaren 25eko 465/2003 Errege Dekretuko Eranskina aldatzen duena.
- PRE/296/2011 Agindua, otsailaren 14koa, animalientzako elikagaietako substantzia gogaikarri buruzko apirilaren 25eko 465/2003 Errege Dekretuko Eranskina aldatzen duena.
- PRE/450/2011 Agindua, martxoaren 3koa, animalientzako elikagaietako substantzia gogaikarri buruzko apirilaren 25eko 465/2003 Errege Dekretuko Eranskina aldatzen duena.

Estekak, iturriak, bibliografia.

- EFSA. EFSAko Elikakateko Kutsatzaileen Panelaren iritzia, produktu dietetikoei eta EFSAko Elikadura eta Alergiei buruzkoa, animalien elikaduran *Ambrosia spp.* hazien presentziak osasun publikoan eta animalien osasunean edo ingurumean dituen ondorioei dagokienez. EFSA Journal (2010); 8(6):1566 (Request N° EFSA-Q-2009-00655; N° EFSA-Q-2010-00890 y N° EFSA-Q-2010-00820)
- Eusko Jaurlaritzak. EAEko landaredi aloktono inbaditzaileen diagnostikoa.
- MAGRAMA. Espainiako landare aloktono inbaditzaileen atlas. *Ambrosia astemisiifolia*.
- **ELIKA**. Pentsuen arriskuen mapa.
- **ELIKA**. Elikadura arriskuen Arloa.
- **ELIKA**. Animalien Elikadura Arloa.
- **ELIKA**. Legeriari buruzko datu-basea.
- **ELIKA**. Alerten Sarearen txostenak - RASFF.